

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2020/2021 ikasturtea**

**HEZKIDETZAREN TRATAERA BERRITZAILE DIGITALA  
LEHEN HEZKUNTZAN**

**Egilea: Leire Castresana Fuentes**

**Zuzendaria: Urtza Garay Ruiz**

**Leioan, 2021eko ekainaren 8an**

**AURKIBIDEA**

Sarrera.....	4
1. Marko teorikoa.....	5
1.1. Gaur egungo gizartearen errealitatea.....	5
1.2. Hezkidetza.....	5
1.2.1. Hezkidetzaren kontzeptua.....	5
1.2.2. Hezkidetzaren bilakaera historikoa.....	6
1.2.3. Hezkidetza gaur egun.....	9
1.3. Gaitasun digitalaren garapena Lehen Hezkuntzan gamifikazioaren bidez.....	10
1.3.1. Gaitasun digitala.....	10
1.3.2. Gamifikazioa.....	10
1.3.3. Escape Room digitala hezkuntzarako baliabide gisa.....	11
2. Diagnostika.....	12
2.1. Helburua.....	12
2.2. Metodologia.....	12
2.3. Lagina.....	12
2.4. Emaizak.....	13
2.5. Ondorio nagusiak.....	17
3. Proposamen didaktiko berritzailea: “Hezkidetza, gure altxorra!”.....	18
3.1. Justifikazioa.....	18
3.2. Helburuak.....	19
3.3. Konpetentziak.....	20
3.4. Nori dago zuzenduta.....	21
3.5. “Hezkidetza, gure altxorra!” material berritzaile didaktiko digitala.....	21
3.5.1. “Hezkidetza, gure altxorra!” material berritzaile didaktiko digitalaren deskribapena eta erabilera.....	22
3.5.2. Escape Room digitalaren deskribapena.....	23
3.5.3. Froga pilotoa.....	23
4. Ondorioak.....	24
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	25

**ERANSKINAK**

1.eranskina. Lehen Hezkuntzako etapan hezkidetza modu sistematikoan lantzen den aztertze inkestak.....	30
2.eranskina. Inkestetan jarritako mezua.....	42
3.eranskina. Materialarekiko ikasleen asetasun maila neurtzeko froga pilotoa.....	44
4.eranskina. Irakaslearen gida.....	45
5.eranskina. Escape Room digitalaren ikasle gida.....	75

**HEZKIDETZAREN TRATAERA BERRITZAILEA LEHEN HEZKUNTZAN****Leire Castresana Fuentes**

UPV/EHU

Gure gizartean emakumeen eskubideen aldeko pausu garrantzitsuak eman dira. Hala ere, asko falta zaigu berdintasunean oinarritutako gizarte bat zein hezkuntza sistema bat lortzeko eta horretarako, ezinbestekoa da ikaslegoarekin hezkidetza lantzea. Beraz, hezkidetza Lehen Hezkuntzan modu sistematikoan lantzen den aztertzeke, 100 ikasleri, 73 irakasleri eta 150 familia kideri inkesta bana banatu zaie eta hauetatik ateratako ondorio nagusia, hezkidetza ez dela nahiko jorratzen izan da. Ondorioz, lan honetan proposaturiko material didaktiko berritzailearen helburua Lehen Hezkuntzako ikasleak hezkidetzaren garrantziaz jabetzea da, hau da, pertsona guztiak desberdinak garela jakitea, desberdintasun hauen aurrean errespetuzko jarrerak eraikiz, eta empatia zein harreman osasuntsuak bermatuz. Material didaktiko berritzailea, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei, hauen irakasleei eta familiei dago zuzenduta.

*Hezkidetza, gamifikazioa, Escape Room digitala, berrikuntza*

En nuestra sociedad se han dado pasos importantes a favor de los derechos de las mujeres. Aun así, nos falta mucho para conseguir una sociedad y un sistema educativo basado en la igualdad y para ello, es necesario trabajar la coeducación con el alumnado. Por consiguiente, para comprobar que la coeducación se trabaja sistemáticamente en Educación Primaria, se han repartido encuestas a 100 alumnxs, 73 profesorxs y 150 familiares, de las cuales se ha concluido que la coeducación no se trabaja suficientemente. Por tanto, el objetivo del material didáctico innovador propuesto es que lxs alumnxs de Educación Primaria se den cuenta de la importancia de la coeducación, esto es, que sepan que todas las personas somos diferentes, creando comportamientos de respeto hacia estas diferencias, y garantizando la empatía y las relaciones sanas. Este está dirigido a alumnxs de 5º y 6º de Educación Primaria y a lxs docentes y familiares de estxs.

*Coeducación, gamificación, Escape Room digital, innovación*

In our society, important steps have been taken in favour of women's rights. Even so, we still have a long way to achieve a society and an education system based on equality and for this, it is necessary to work on coeducation with students. Therefore, in order to verify that coeducation is systematically worked in Primary Education, surveys have been distributed to 100 pupils, 73 teachers and 150 family members, from which it has been concluded that coeducation is not sufficiently worked. Consequently, the aim of the proposed innovative teaching material is to make Primary Education students aware of the importance of coeducation, that is, that they know that all people are different, creating respectful behaviours towards those differences, and ensuring empathy and healthy relationships.

*Coeducation, gamification, digital Scape Room, innovation*

## Sarrera

Nahiz eta azkeneko hamarkadetan emakumeen eskubideen aldeko pausu garrantzitsuak eman diren, oraindik ez dugu lortu berdintasunean oinarritutako gizarte bat. Errealitatea horrela izanda, hezkuntza esparruan hezkidetzaren lantzea ezinbestekoa bilakatzen da. Izan ere, hezkuntza gizartearen isla da. Beraz, lan honetan aurkezten den material didaktiko berritzaileak Lehen Hezkuntzako ikasleak hezkidetzaren garrantziaz jabetzea du helburu, hau da, pertsona guztiak desberdinak garela jakitea, desberdintasun hauen aurrean errespetuzko jarrerak eraikiz, eta enpatia zein harreman osasuntsuak bermatuz.

Horretarako, webgune bat prestatu da, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei eta huen irakasleei eta familia kideei zuzenduta dagoena. Bertan hezkidetzaren era integral batean garatzeko proiektua topatu dezakete ikasle, irakasle eta familiek.

Lana hiru atal nagusitan banatzen da. Alde batetik, hezkidetzari eta gamifikazioari buruz burututako bilaketa bibliografikoa aurkitzen da, hau da, lanaren oinarri teorikoa. Beste alde batetik, diagnosia aurkitzen da. Bilaketa bibliografikoa aurrera eraman eta hezkuntzan hezkidetzak oraindik duen garrantzia baieztatu ondoren, Lehen Hezkuntzako etapan ikasleek hezkidetzaren modu sistematiko batean lantzen duten ala ez egiaztatu nahi izan da. Horretarako, hiru inkesta prestatu dira, lehenengoa Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta, bigarrena Lehen Hezkuntzako irakasleei eta azkena, huen familiei bideratuta. Inkesta hauetatik ateratako ondorio nagusia, ikasleek hezkidetzaren nahiko jorratzen ez dutela, baina landuko beharko luketela izan da. Gainera, horretarako, IKT-ak erabiltzea egokia izan litzatekela ondorioztatu da. Bestetik, errealitateari erantzuteko sortutako material didaktiko berritzaile digitalaren deskribapena aurkitzen da, baita materialari buruzko ebaluazioa ere.

Bukatzeko, ondorio orokorrak aurkitzen dira, non lanaren inguruko gogoeta eta hau burutzeko izandako mugak azaltzen diren. Muga hauetatik abiatuta, etorkizunerako erronkak adierazten dira baita ere.

## **1. Marko teorikoa**

### **1.1. Gaur egungo gizartearen errealitatea**

Gure gizartean emakumeen eskubideen aldeko pausu handiak eman dira. Hala ere, oraindik asko falta zaigu gizarte feminista batean bizitzeko aukera izateko. Izan ere, Fissen (1993) aburuz, feminismoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea helburu duten eta mugimendu sozial eta politiko zabalaren barnean aurki daitezkeen ideien eta sinesmenen multzoa da. Hori dela eta, baieztatu daiteke aipatutako ideiak eta sinesmenak oraindik ez daudela eguneko gizartean ezarrita.

Emakumeen eta gizonen artean dagoen desparekotasun hau eragile desberdinen ondorioz ematen da, hauen artean, sistema patriarkala, matxismoa, sexismoa eta androzentrismoa aurki daitezke (Ugarte, Otaduy eta Irigoyen, d.g.). Alde batetik, sistema patriarkalari dagokionez, erakunde sozial eta primitiboa da, boterea familia bakoitzaren gizon buruzagiak du eta aipatutako boterea leinuko senideei zabaltzen die (Real Academia Española [RAE], 2014). Ildo beretik, patriarkatuaren barnean erabiltzen diren metodoen multzoari sexismoa deritza, hauen bitartez pertsona bati bere sexuaren arabera abantailak emanez edota diskriminatuz (Emakumearen Euskal Erakunde [EMAKUNDE], 2015).

Bestetik, matxismoari erreparatuz, Polet eta Marielosen (2016) arabera, jokabide, jarrera eta balio batzuen multzoa da, maskulinitatearen baieztapen sistematiagoatik bereizgarri izanik. Hau da, matxismoa artasuna goraiatzeko da, emakumeen pertsonalitatea eta esentzia gutxietsiz. Azkenik, androzentrismoari begira, gizonekin erlazioatutako ezaugarriak unibertsoaren zentroa direlaren ikuspegia duen mugimendua da. Izan ere, gizateria gizonarekin nahasten du. Sexismoaren forma zehatz bat da, emakumeen ezkutaketan adierazten dena (EMAKUNDE, 2015).

Orain arte aipatutako desparekotasuna ez da soilik gizartean ematen, hezkuntzan ere antzeman daiteke. Azken finean, hezkuntza gizartearen isla da. Molinesek (2015) aipatzen duen moduan, ikasleei haien sexuaren arabera jarrera eta erantzun desberdinak onartzen eta eskatzen zaizkie.

### **1.2. Hezkidetzak**

#### **1.2.1. Hezkidetzaren kontzeptua**

Nahiz eta gaur eguneko ikastetxeak mistoak eta ikasleek lantzen dituzten edukiak berdinak izan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ez da berdintasunean aurrera eramaten.

Izan ere, aurretik aipatu bezala, gizartean ageri den emakumeen eta gizonen arteko desparekotasuna, hezkuntzan islatzen da, modu kontziente zein inkontziente batean.

Hori saihesteko, hezkuntza hezkidetzaila garatzea beharrezkoa da. Hots, pertsona guztiak modu berdintsu eta balioen, arauen, jokabideen eta esperientzien sistema batean hezi behar dira. Hezkuntza ez da genero sozialarengatik hierarkizatuta egon behar, hau da, genero batek bestearengatik duen gailentasuna deuseztatu behar da (Cremades, 1995).

Hezkidetzak kontzeptuari begira, genero- eta sexu- dikotomietan oinarritutako heziketa gaitzetzeko paradigma da. Hau da, Ugarte et al. egileen hitzetan (d.g., 5. or.) “hezkidetzak neskak zein mutilak genero maskulino eta femeninotik aske heztean datza, bere indibidualtasunaren garapena sustatuz eta gizarte sexista batek eskatzen dizkien errolak kontuan hartu gabe”. Bestetik, Baena eta Ruizen (2009) arabera, hezkidetzak ikasleengan bideratuta dagoen giza sozializazio prozesua da, non denek aukera- eta eskubideberdintasuna dituzten. Berdintasunaren ideologian oinarritzen da, askatasuna, aniztasuna eta eskuzabaltasuna gehituz.

Aipatutakoa aintzat hartuz, Ugarte et al.-ek (d.g.) diotena jarraituz, ondorioztatu daiteke hezkidetzak feminismoaren alaba dela. Izan ere, hezkidetzak feminismitik jasotako genero-ikuspegia kontuan izanik hezitzaileen errealitatea ikertzen du eta ematen diren diskriminazioak gaitzetzeko hezkuntza-proposamenak burutzen ditu. Hortaz, ezinbestekoa da feminismoa zer den jakitea. Feminismoa, formalki XVIII. mendearen amaieran hasi zen mugimendu sozial eta politikoa da, non emakumeak patriarkatuaren zapalketa, menderatze eta esplotazio objektuak zirela konturatzen hasi ziren (Sau, 2000). Marcuseren (1976) esanetan, mugimendu feministak bi mailetan jarduten du. Alde batetik, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen arloan berdintasun osoa lortzeko borrokatzen du. Beste alde batetik, gizarte berri bat sortu nahi du non gizon-emakume dikotomia gaitzetzen den, hau da, errealitate berria duen gizarte bat.

### **1.2.2. Hezkidetzaren bilakaera historikoa**

Hezkidetzak zer den ulertzeko, kontzeptua azaltzeaz gain, bere bilakaera historikoa garatzea ezinbestekoa da. Lehenik, 1857ko irailaren 9an *Moyano Legea* jarri zen indarrean, emakumearen heziketarako aurrerapen ikaragarria eragin zuena. Lege honen bidez, 500 herritar baino gehiagoko herrietan nesken eskolak sortu ziren, emakumeen oinarritzeko heziketa jasotzeko eskubidea onartuz; eta 1858an Irakasle Emakumeen “Eskola Normal Zentrala” sortu zen, hauek irakaskuntza pedagogikoa aurrera eramateko

eskubidea zutela onartuz. Gainera, probintzietan neskontzako “Eskola Normalak” sortzen hasi ziren. Hala ere, heziketa oraindik ere bi sexuen arteko lanen bereizketa tradizionalan oinarrituz burutu zen (Scanlon, 1987).

XX. mendearen hasieran, 1909ko urriaren 26an *Dekretu Erreal*a ezarri eta eskola mistoa arautu zen. Aldaketa honi hezkidetzaren deitu zitzaion, gaur egun ezagutzen dugun hezkidetzarekin zerikusirik izan ez arren (Urruzola, 1995). Aipagarria da, hezkidetzaren aurrera eramaten zuen Ferrer eta Guàrdia-ren “Eskola Modernoak” eragin handia izan zuela beste hainbat eskoletan. Honetaz gain, Espainiako Errepublikak 1931n gaitututako legegintza emakumeen eta gizonen arteko berdintasun legala ezartzen zuen (Benedí, 2012). Ondorioz, emakume espainiarrak errepublikan zenbait eskubide politiko, zibil eta sozial lortu zituzten, baina ez zuten parekatze legegintza osoa lortu (Núñez, 1998).

Espainiako Gerra Zibilaren eta 1939tik aurrera ezarritako frankismoaren ondorioz, hartutako erabakiak deuseztatu ziren. Izan ere, frankismoaren garaian hezkuntzak berriro ere elizaren menpe geratu zen, eskola mistoen desagertzea eraginez. Modu honetan, nesken heziketa Falangearen Emakumezkoen Atalean oinarritzen zen, XVIII. mendean egokituta zeuden printzipioetara itzuliz (Benedí, 2012).

Gero, 1970eko *Hezkuntzaren Lege Orokorra* [LGE] gaitutu arte, zenbait lege ezarri ziren eskola segregatzailea sustatzen zutenak, horien artean, 1945eko *Lehen Hezkuntzako Legea*. Ondoren, XX. mendeko 70. hamarkadaren amaieran, Espainia frankistak estatuaren maila kulturala hobetzeko helburua izan zuen, herritarren alfabetatzeak aurrerapen ekonomikoak ekarriko zuela pentsatzen zuelako. Modu honetan, LGE ezarri zen. Honek hezkuntzaren berrikuntza ekarri zuen, non emakumeen eskulana ezinbestekoa bilakatu zen. Dena den, hezkuntza nahiko anbigua zen, ez zuen balio tradizionalen eta rol etxekoien aurka jotzen (González, 2010).

Ondoren, 1990ean *Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorren Lege Organikoa* [LOGSE] ezarri zen, Espainiako Langile Alderdi Sozialistaren [PSOE] eskutik, sexuen arteko diskriminazioa onartu zuen lehenengo legea izanik. Honek hitzurrearen bosgarren paragrafoan honako hau esaten zuen: “la educación permite, en fin, avanzar en la lucha contra la discriminación y la desigualdad, sean éstas por razón de nacimiento, raza, sexo, religión u opinión, ya tengan un origen familiar o social, se arrastren tradicionalmente o desaparezcan continuamente con la dinámica de la sociedad” (LOGSE, 1990, 28927. or.). Gainera, LOGSEren (1990, 28936. or.) 57. artikuluan, material didaktikoei buruz hitz

egiterakoan honako hau aipatzen da: “3. En la elaboración de tales materiales didácticos se propiciará la superación de todo tipo de estereotipos discriminatorios, subrayándose la igualdad de derechos entre los sexos.”

Hamarkada batean, 2002an Alderdi Popularrak [PP] *Hezkuntzaren Kalitateari buruzko Lege Organikoa* [LOCE] jarri zuen martxan, besteak beste, diskriminazioekin amaitzeko interbentzio printzipioarekin akabatu zuena. Esate baterako, sexuen arabera bereizita dagoen hezkuntzari atea ireki zizkion. Gainera, LOCE (2002) legeak soilik “alumnos”, “profesores”, “directores” edota “ciudadanos”-ei aipamena egiten zien, gizonezkoen generoaren erabilera orokorra eginez. Beraz, LOCEk desberdintasunaren sustapena eragiten zuen eta hezkuntzak izan behar duen rolaren aurka zihoan (Ballarín, 2004).

Honetaz gain, 2004ko martxoaren 28an, PSOE gobernatzen zegoelarik, *Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Neurri Integralen Lege Organikoa* [LOMPICVG] ezarri zen. González (2010) esanetan, honek berdintasunaren aldeko hezkuntza aldarrikatzen zuen, material didaktikoetatik estereotipo sexistak kenduz. Gainera, Gobernuak xedapen gehigarriak zehaztu zituen gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen zituzten printzipioak eta balioak zehazteko asmoz. Hauen artean aipagarria da, lehenengo kapituluko seigarren artikuluan adierazten dena: “Artículo 6. Fomento de la igualdad. Con el fin de garantizar la efectiva igualdad entre hombres y mujeres, las Administraciones educativas velarán para que en todos los materiales educativos se eliminen los estereotipos sexistas o discriminatorios y para que fomenten el igual valor de hombres y mujeres” (LOMPICVG, 2004, 12. or.).

Jarraitzeko, 2006an *Hezkuntzaren Lege Organikoa* [LOE] jarri zen indarrean, PSOEren eskutik. Lege honek hezkuntza berrantolatu egin zuen, sexuaren ondoriozko diskriminazioari uko egiten, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunen ezagutzak gehitzeko beharra aldarrikatzen eta berdintasunarekin erlazionatutako gaien inguruan ikertzeko nahia adierazten zuten erreferentzia desberdinak izanik. Adibidez, LOEren (2006, 27. or.) 23. artikuluan honako helburu hau zehazten da: “c) Valorar y respetar la diferencia de sexos y la igualdad de derechos y oportunidades entre ellos. Rechazar los estereotipos que supongan discriminación entre hombres y mujeres”. Lege honen berrikuntzarik esanguratsuena gizon/emakume gaia integratzen zuela zen, Hiritartasunerako Hezkuntzaren bidez. Honetaz gain, LOEk baita ere bi sexuen arteko desberdintasuna eta emakumeek burututako kultur ekarpenak proposatzen zituen (Subirats, 2010).



Gainera, 2013ko abenduaren 9an *Hezkuntza Erreforma Hobetzeko Lege Organikoa* [LOMCE] ezarri zen, PPK gobernatzeko zuelarik. Lege honek aurretik zehaztutako LOE legearen aspektu klabe batzuk berregin zituen. Alde batetik, sexuaren arabera bereizketaren alde egin zuen. Horretarako, Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura-ren [UNESCO] (1960) hitzarmenaren bigarren artikuluan babestu zen (Fernández eta González, 2015, 249. or.).

ARTÍCULO 2: En el caso de que el Estado admita, las situaciones siguientes no serán consideradas como consecutivas de discriminación en el sentido del artículo 1 de la presente Convención: a. La creación o el mantenimiento de sistemas o establecimientos de enseñanza separados para los alumnos de sexo masculino y para los de sexo femenino, siempre que esos sistemas o establecimientos ofrezcan facilidades equivalentes de acceso a la enseñanza, dispongan de un personal docente igualmente calificado, así como de locales escolares y de un equipo de igual calidad y permitan seguir los mismos programas de estudio o programas equivalentes.

Bestetik, LOMCE-k Hiritartasunerako Hezkuntza kendu zuen, genero ekitateari buruz eduki zehatzak lantzen zituen irakasgai bakarra izanik (Fernández eta González, 2015).

Azkenik, hezkidetzaren bilakaera historikoa aztertuz gero, argi dago kontzeptua zein eskolan ematen zaion tratamendua nahiko aldatu dela. Hala ere, lan asko daukagu benetako eskola hezkidetzaileria lortzeko, hala nola, emakumeen presentziaren ezkutaketa eta ikusezintasuna aztertzea, pautak aldatzeko lan plana sortzea edota kudeaketa karguak eta erabakien hartzea parekideak izatea (Subirats, 2010).

### **1.2.3. Hezkidetzak gaur egun**

Hezkidetzak zer den ulertu ondoren, ezin da ukatu ezinbestekoa dela gaur eguneko hezkuntza sistema hezkidetzaileria izatea. Modu honetan, Cabezen (2010) aburuz, ikasleek ikaskuntza integrala jasoko dute, errespetuzko bizitza baterako prestatuz eta ez da sexuarengatik aspektu diskriminatzailearik emango. Genero berdintasuna lortu nahi bada emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialak sortzen dituzten eragozpen guztiak ezabatu behar dira. Horregatik, genero berdintasuna lantzeko hezkuntza ezinbesteko elementu bezala ikusten da (Arcos, Figueroa, Miranda eta Ramos, 2007).

Honetaz gain, haurtzaroko eta nerabeen etapan hezkidetzaren garrantzia guztiz erabakigarria da, urte hauetan ikasleek haien pertsonalitatea eta garapen sozial eta morala garatzen ari direlako. Ondorioz, ezinbestekoa da ikasleak berdintasuneko praktikan hezitzea, estereotipoetatik eta jarrera sexistetatik askeak izanik, non emakume edota gizon eredu bat ez dagoen, baizik eta pertsona kontzeptuaren ereduak (Cabeza, 2010).

### **1.3. Gaitasun digitalaren garapena Lehen Hezkuntzan gamifikazioaren bidez**

#### **1.3.1. Gaitasun digitala**

Konpetentzien inguruko ECD/65/2015 Ordenaren arabera (2015), konpetentzia digitala informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sortzailea, kritikoa eta segurua aurrera eramaten du, lanarekin, enplegarritasunarekin, ikaskuntzarekin, aisialdiaren erabilerarekin, inklusioarekin eta gizartean parte hartzearekin erlazionatuta dauden helburuak lortzeko. Honen eskuratzeko 3/2020 Lege Organikoaren (LOMLOE) bidez garatzen da eta honen ondorioz, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoa aldatzen da. Aldi berean, hezkuntza digitalerako hezkuntza bermatzen da 3/2018 Lege Organikoko 83. artikuluan, Datu Pertsonalen Babespenari eta eskubide digitalaren ziurtasunari buruzkoa (Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación del Profesorado [INTEF], d.g.).

Konpetentzia digitalaren garapen egokia burutzeko, mundu digitalaren eskubideak eta arriskuak ezagutu behar dira; hizkuntza zehatza jakin behar da; oinarrizko aplikazio informatikoak eta informazio iturriak ezagutu behar dira; ikasleek komunikatzeko eta arazoak ebazteko baliabide teknologikoak erabiltzeko gai izan behar dira; hauek informazioa erabili eta prozesatu behar dute modu kritiko eta sistematiko batean; informazioa bilatu, lortu eta erabili behar dute; eta edukiak sortzeko gai izan behar dira (Konpetentzia klabeen inguruko ECD/65/2015 Ordena, 2015).

Azkenik, ikasleek teknologiekiko eta euskarri teknologiekiko jarrera aktiboa, kritikoa eta errealista eta ikasteko eta teknologien erabilera hobetzeko motibazioa eta jakin-mina izan behar dute. Gainera, euskarri teknologikoen indarrak eta ahuleziak aintzat hartu eta erabileraren printzipio etikoak errespetatu behar dituzte (Konpetentzia klabeen inguruko ECD/65/2015 Ordena, 2015).

#### **1.3.2. Gamifikazioa**

Garcíaren (2019) aburuz, gamifikazio hezigarria gero eta hedatuago dago, ikasleengan eragiten duen motibazioa eta inplikazioa arrazoi direlarik. Gamifikazioa jolasetan ematen diren estrategien, dinamiken, mekaniken eta elementuen erabilera da, baina kasu honetan, beste testuinguru desberdinetan ematen da. Honen helburua, mezu bat edo edukiak adieraztea edota jarrera bat aldatzea da, motibazioa, inplikazioa eta dibertsioa sustatzen duen esperientzia ludiko baten bitartez (Llorens et al., 2016). Ildo beretik, ezinbestekoa da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan gamifikazioa eta jolasak desberdintzea.

Gamifikazio hezitzaileak jolasen elementuak erabiltzen ditu, hala nola, lehiakortasun taulak edota ordainsariak (García, 2019). Hala ere, Vassilevaren (2012) arabera, gamifikazioan ikasleentzat espazio inspiratzaileago eta motibatzaileago bat dago.

Gamifikazioak hainbat abantaila ditu ikasleentzat: ikasleak burutzen duen esfortzu akademikoa saritzea eta onartzea bilatzen du, ikasleek haien aurrerapenak identifikatuz; ikasle batek bere errendimendu akademikoa hobetzeko interesa jartzen duenean gamifikazioak prozesu hau errazten du teknologiak eta dinamika integratzaileen bidez; eta gamifikazioak estrategia metodologiko gisa ikasleen ulermen zailtasunak desagertzen laguntzen du, paradigma aldaketaren eraginez (Oliva, 2016).

Dena dela, desabantailak ere baditu. Romero eta Lópezek (2021) ikasle batzuei burututako inkestan ikus daitekeen moduan, gamifikazioaren bidez ikasleen ikaskuntza osatugabea izan daiteke, planteamendu didaktiko arin baten ondorioz, non gamifikazioa joku bat bezala ulertzen den eta ez estrategia didaktikoa bezala. Askotan tresna digitalari gehiegizko arreta ematen zaio, proposamenaren zentzu didaktikoa alde batera utziz. Honetaz gain, kasu batzuetan hauen erabilera bideraezina izaten da, ikasleek etxean zereginekin jarraitzeko baliabideak ez dituztelako. Gainera, askotan gamifikazioan aurrera eramaten diren dinamikak ikasleengan gehiegizko lehiakortasuna garatzen dute, taldeko lankidetzaren falta sustatuz (Romero eta López, 2021). Jarraitzeko, gamifikazioaren bidez irakasleak ikasleak protagonista diren giro ludiko bat sortzen ez badu, ikasleek emozio negatiboak garatzeko arriskua dago (López, Segura, Fuentes eta Parra, 2020).

### **1.3.3. Escape Room digitala hezkuntzarako baliabide gisa**

Gamifikazioaren eremuan aurki daitezkeen jarduera desberdinen artean, Escape Room-ak aipa daitezke. Hauen jatorria Japonian dokumentatuta dago, 2007. urtean. Escape Room-ak jokuak dira, non pertsonen talde batek enigma desberdinak ebazteko aktiboki parte hartu behar duen. Modu honetan, jokua helburu nagusia lortuko dute: beraien burua askatu eta giltzapetuta dauden gelatik irtetzea (Bodnar, Anastasio, Enszer eta Burkey, 2016).

Aipatutakoa aintzat hartuz, Escape Room hezigarri digitalak sortu dira. Hauek ikaskuntza errazten duten tresnak dira ikuspegi ludikoago batetik, non parte hartzaileek haien ezagutzak, trebetasunak eta azkartasuna erabili behar duten bertan dauden enigmak eta erronkak ebazteko. Horrela, aurrean duten arazoaren erantzuna lortu beharko dute,

taldekideen parte hartze aktiboa eta jarrera proaktiboaren bidez (Moreno, Hunt, Ferreras eta Moreno, 2020).

Vidergorren (2021) esanetan, Escape Room digitalak berezko motibazioa sustatzen dute parte hartzaileengan. Motibazioa, helburu bat izatea da eta hori lortzera erabakitzea eta ahaleaginean mantentzea (Iriarte, 2007). Bi motibazio mota daude: berezko motibazioa eta motibazio instrumentala. Berezko motibazioaren jatorria subjektua bera da eta bere helburua norberaren errealizazioa esperimintatzea da. Motibazio instrumentalaren jatorria, aldiz, kanpotik dator eta honen bidez, gertaera edota objektu desberdinen eraginez pertsonak ekintza desberdinak egitera bultzatuta sentitzen dira (Ospina, 2006).

Azkenik, Escape Room-ak estrategia bezala erabili daitezke, ikasleen motibazioa sustatu eta hauen ikaskuntzarekiko konpromisoa handitu dezaketelako. Hau da, ikasleak edukietaz jabetuko dira beraien jarrera aktiboari esker (Sierra eta Fernández, 2019).

## **2. Diagnosia**

### **2.1. Helburua**

Diagnosiaren helburua, Lehen Hezkuntzako etapan ikasleek ikasgelan hezkidetzatza modu sistematiko batean lantzen duten ala ez aztertzea da.

### **2.2. Metodologia**

Lehen Hezkuntzako etapan hezkidetzatza modu sistematikoan lantzen den ala ez aztertzeke, hiru inkesta erabili dira (*ikus 1. eranskina*) eta bakoitza laginaren talde bati bideratu zaio: Lehen Hezkuntzako ikasleei, irakasleei eta hauen familiei. Inkestak Instituto de la Juventudek [injuve] (2008) burututako gazteen eta genero berdintasunaren inguruko ikerketan, Cristina Díaz-Pinések (d.g.) egindako ikastetxeen berdintasunaren errealitatearen inguruko diagnostikoan eta INTEFen (2013) teknologien inguruko ikerketen galdetegiak oinarritzen dira, ikerketaren testuingurura moldatuz. Hauek Likert eskalan oinarritutakoak dira eta 20 item baino gutxiago dituzte: ikasleak 13 galdera, irakasleak 18 eta familienak 16. Bere zabalkundea sare sozialen bidez egin da eta Google Forms-en gauzatu dira (*ikus 2. eranskina*).

### **2.3. Lagina**

Lagina 323 pertsonak osatzen dute eta hiru talde nagusietan banatzen dira: 150 Lehen Hezkuntzako 6-12 urteko ikasleak dira eta laginaren % 46,43 osatzen dute; 73 Lehen Hezkuntzako irakasleak, hots, laginaren % 22,6; eta 100 familiak, laginaren % 30,95.

Alde batetik, ikasleen inkestan 150 erantzunetatik % 54 neskena, % 44,7 mutilena eta % 1,3 ageneroena da. Ikasleen % 74,7 Bizkaikoa da, % 8 Gipuzkoakoa, % 1,3 Arabakoa eta % 16 beste leku batekoa. Umeen % 4 6-7 urte bitartekoa, % 6,7 7-8, % 1,3 8-9, % 40,7 9-10, % 18 10-11 eta % 29,3 11-12 urte bitartekoa da.

Bestetik, irakasleen inkestan 73 erantzunetatik % 84,9 emakumeena eta % 15,1 gizonena da. Irakasleen % 41,1en adina 20-30 urte bitartekoa, % 21,9rena 30-40, % 27,4rena 40-50, % 8,2 rena 50-60 eta % 1,4rena 60 urte baino gehiagokoa da. Honetaz gain, % 71,2 Bizkaikoa da, % 26 Gipuzkoakoa eta % 2,7 Arabakoa. % 57,5ek 1-10 urte bitartean darama irakaskuntzan, % 23,3k 10-20, % 13,7k 20-30 eta % 5,5ek 30-40 urte bitartean. Inkesta burututako irakasleen % 61,6 tutoreak dira, % 19,2 Hezkuntza Bereziko irakasleak, % 15,1 Ingelesekoak, % 5,5 Musikakoak, % 2,7 Gorputz Hezkuntzakoak eta % 13,7 beste motatako irakasleak. % 19,2k Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan lan egiten dute, % 12,3k bigarren mailan, % 16,4k hirugarren mailan, % 17,8k laugarren mailan, % 11k bosgarren mailan eta % 23,3k seigarren mailan. Azkenik, % 74k ikastetxe publiko batean lan egiten du, % 24,7k ikastetxe kontzertatu batean eta % 1,4k ikastetxe pribatu batean.

Azkenik, familien inkestan 100 erantzunetatik % 88 emakumeena eta % 12 gizonena da. % 2 20-30 urte bitartekoak, % 17 30-40, % 78 40-50 eta % 3 50 urte baino gehiagokoak dira. % 88 Bizkaian bizi dira, % 6 Gipuzkoan eta % 6 beste leku batean. Erantzun duten % 33k seme-alaba bakarra dute, % 53k bi, % 9k hiru eta % 5ek hiru baino gehiago.

#### **2.4. Emaitzak**

Ondoren, inkestetako emaitzak galdetegiko galderen ordena jarraituta eta lagin taldeak kontuan izanik aurkeztuko dira.

*Lehen Hezkuntzako ikasleei bideratutako inkestari* begira, hauen adina eta generoa hartu dira ardatz gisa. Lehenengo galderan (“Bal al dakizu zer diren IKT-ak?”), % 90ek baietz erantzun du eta % 10ek ezetz, ezetz erantzun dutenen gehiengoa 9 urte izanik. Bigarren galderan (“Uste duzu gaur eguneko gizartean IKT-ak garrantzitsuak direla?”), gehiengoak baietz erantzun du, % 94,7k eta % 5,3k ezetz, ezetz erantzun dutenen gehiengoa 9-10 urteak izanik. Hirugarren galderan (“IKT-ak erabiltzen dituzue eskolan?”), % 68k nahiko, % 26k gutxi eta % 6k ez dituztela erabiltzen erantzun du. Kasu honetan, IKT-ak ez dituztela erabiltzen edota gutxi erabiltzen dituztela erantzun duten ikasle gehienak 9 urtekoak dira. Laugarren galderan (“IKT-ak eskolan erabiltzen

badituzue, zer gai lantzen dituzue eskolan hauen bidez?”), erantzun duten ume gehienak 10-12 urte bitartekoak izan dira, gehien errepikatu diren erantzunak, Matematika, Euskara eta Lengua izanik.

Bosgarren galderan (“Nola ikusten duzu zure burua teknologian?”), % 41,3k nahiko trebeak direla, % 50ek oso trebeak eta % 8,7k traketsak direla erantzun du. Traketsak direla erantzun duten gehienak neskak izan dira, 6-9 urte bitartekoak. Nahiko trebeak direla erantzun dutenen artean, gehienak 9-10 urte bitartekoak dira eta oso trebeak, 11-12 urte bitartekoak. Seigarren galderan (“Klaseko jarduerak burutzeko IKT-ak erabiltzea gustatzen zaizu?”), % 84,7k baietz erantzun du, % 12,7k ez asko eta % 2,7k ezetz. Ezetz erantzun dutenek 6-10 urte bitarteko ikasleak izan dira eta gehienak, neskak. Zazpigarren galderan (“Uste duzu beharrezkoa dela gizartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea?”), % 90ek baietz erantzun du eta % 10ek ezetz, ezetz erantzun duten gehienak 9-10 urte bitartekoak izanik.

Zortzigarren galderan (“Uste duzu genero berdintasuna dagoela?”), % 62,7k baietz erantzun du eta % 37,3k ezetz. Ezetz erantzun duten gehienak 9-12 urte bitartekoak izan dira eta neskak. Bederatzigarren galderan (“Ba al dakizu zer den feminismoa?”), % 77k baietz erantzun du eta % 23k ezetz. Ezetz erantzun duten gehienak 6-10 eta baietz erantzun duten gehienak 10-12 urte bitartekoa izan dira. Hamargarren galderan (“Feminismoa eskolan lantzen duzue?”), % 71,3k baietz erantzun du eta % 28,7k ezetz. Ezetz erantzun duten gehienak 6-10 urte bitartekoak eta baietz erantzun dutenak 11-12 urte bitartekoak izanik.

Hamaikagarren galderan (“Feminismoa eskolan lantzen baduzue, IKT-ak erabiltzen dituzue horretarako?”), % 61,8k ezetz erantzun du eta % 38,7k baietz, erantzun duten ikasleak 11-12 urte bitartekoak izanik. Hamabigarren galderan (“Nortzuk dira trebeagoak IKT-etan?”), % 88,7k generoarekin zerikusirik ez daukala, % 6k mutilak eta % 5,3k neskak erantzun du. Neskak trebeagoak direla erantzun duten gehienak neskak izan dira. Hamahirugarren galderan (“Aipatu Youtuber baten izena”), aipatu dituzten Youtuber gehienak mutilak izan dira. Baita ere neska Youtuberrak agertu dira, neskek aipatuta.

*Lehen Hezkuntzako irakasleei bideratutako inkestari erreparatuz, hauen generoa eta zein mailan lan egiten duten hartu dira ardatz gisa. Lehenengo galderan (“Uste duzu gaur eguneko gizartean IKT-ak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) garrantzitsuak direla?”), % 98,6k baietz erantzun du eta % 1,4k, ezetz, ezetz erantzun*

duen bakarria lehenengo mailan lan egiten duen emakumea izanik. Bigarren galderan (“Dekretua kontuan hartuz, uste duzu IKT-ak eskolan erabili behar direla?”), % 97,3k baietz erantzun du eta % 2,7k ezetz. Ezetz erantzun duten guztiak lehenengo mailan lan egiten duten emakumeak dira. Hirugarren galderan (“IKT-ak erabiltzen dituzue eskolan?”), % 82,2k baietz, nahiko erabiltzen dutela erantzun dute eta % 17,8k ezetz, gutxi erabiltzen dutela. Ezetz erantzun dutenek 1.-3. maila bitartean lan egiten dute. Laugarren galderan (“Uste duzu IKT-ak erabilgarriak izan daitezkeela umeekin eskolan eduki desberdinak lantzeko?”), % 86,3k baietz erantzun du, % 12,3k edukiaren arabera eta % 1,4k ezetz. Ezetz erantzun duen bakarria lehenengo mailan lan egiten duen emakumea izan da eta edukiaren arabera erantzun dutenak, 3.-6. maila bitartean lan egiten dute.

Bosgarren galderan (“Zein eduki lantzen dituzue eskolan IKT-en bidez?”), 4.-6. mailetan, irakasgai gehienetarako erabiltzen dituzte eta 1-3. mailetan erabilera mugatuagoa da. Seigarren galderan (“Uste duzu beharrezkoa dela gizartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea?”), % 100ek baietz erantzun du. Zazpigarren galderan (“Uste duzu genero berdintasuna dagoela?”), % 91,8k baietz erantzun du eta % 8,2k ezetz, ezetz erantzun duten bost pertsonetatik lau emakumeak eta bat gizona izanik. Zortzigarren galderan (“Uste duzu aukeren berdintasuna dagoela?”), % 86,3k ezetz erantzun du eta % 13,7k baietz. Bederatzigarren galderan (“Bal al dakizu zer den feminismoa?”), % 100ek baietz erantzun du.

Hamargarren galderan (“Uste duzu eskolan genero berdintasuna lantzea garrantzitsua dela?”), % 98,6k baietz erantzun du eta % 1,4k ezetz, ezetz erantzun duen bakarria gizona izanik. Hamaikagarren galderan (“Uste duzu hezkidetza eskolan lantzea garrantzitsua dela?”), % 98,6k baietz erantzun du eta % 1,4k ezetz, ezetz erantzun duen bakarria gizona izanik. Hamabigarren galderan (“Uste duzu hezkidetza eskolan nahiko edo modu sistematiko batean lantzen duzuela?”), % 47,9k nahiko lantzen dutela erantzun dute eta % 52,1ek gehiago landuko beharko luketela. Hamahirugarren galderan (“Uste duzu IKT-ak tresna baliagarriak direla hezkidetza eskolan lantzeko?”), % 97,3k baietz erantzun du eta % 2,7k ezetz. Ezetz erantzun duten irakasleak lehenengo mailan lan egiten dute. Hamalaugarren galderan (“Umeei eskolan IKT-en bidez hezkidetza lantzen dute?”), % 50,7k ezetz erantzun du eta % 49,3k baietz. Hamabosgarren galderan (“Uste duzu teknologiaren munduan genero arrakala dagoela?”), % 82,2k baietz erantzun du eta % 17,8k ezetz, ezetz erantzun duten gehienak emakumeak izanik.

Hamaseigarren galderan (“Uste duzu IKT-en erabilera eskoletan sustatzea erabilgarria izan daitezkeela aurreko galderan aipatutako arrakala desagertzen joateko?”), % 84,9k baietz, % 12,3k ez dagoela inolako arrakalarik eta % 2,7k ezetz erantzun du. Ezetz erantzun duten guztiak lehenengo mailan lan egiten duten emakumeak izan dira eta inolako arrakalarik erantzun dutenen artean, gehienek 5.-6. mailan jarduten dute. Hamazazpigarren galderan (“Eskolak arrakala honen jakituna da eta hau saihesteko neurriak hartu ditu?”), % 39,7k egoeraren jakituna dela baina ez duela inolako neurririk hartu, % 37k ez dela egoera honen jakituna eta % 23,3k egoeraren jakituna dela eta neurriak hartu dituela erantzun du. Hamazortzigarren galderan (“Eskolak neurriak hartu baditu zeintzuk dira neurri horiek?”), gailendu den erantzuna egun berezietan emakumeok historian zehar izan dugun paper garrantzitsua azpimarratzea izan da.

*Lehen Hezkuntzako ikasleen familiei bideratutako inkestari dagokionez, hauen generoa eta adina hartu dira ardatz gisa. Lehenengo galderan (“Uste duzu gaur eguneko gizartean IKT-ak garrantzitsuak direla?”), % 99k baietz erantzun du eta % 1ek ezetz, ezetz erantzun duen bakarra emakumea izanik, 40-50 urte bitartekoa. Bigarren galderan (“Uste duzu IKT-ak eskoletan erabili behar direla?”), % 98k baietz erantzun du eta % 2k ezetz, ezetz erantzun duten bi pertsonak emakumeak izanik, 40-50 urte bitartekoak. Hirugarren galderan (“Uste duzu IKT-ak eskoletan erabiltzen direla?”), % 54k nahiko erabiltzen direla eta % 46k gutxi erabiltzen direla erantzun du. Gutxi erabiltzen direnen artean gizonak nabarmentzen dira eta 20-30 eta 30-40 adin tartea. 40-50 eta 50 baino gehiagokoak, aldiz, nahiko erabiltzen direla erantzun dute.*

Laugarren galderan (“Uste duzu IKT-ak erabilgarriak izan daitezkeela umeekin eskolan eduki desberdinak lantzeko?”), % 78k baietz erantzun du, % 21ek edukiaren arabera eta % 1ek ezetz. Ezetz erantzun duen bakarra emakumea da, 40-50 urte bitartekoa. Edukiaren arabera erantzun dutenen artean emakumeak nabarmendu dira, 30-40 eta 40-50 urte bitartekoak. Bosgarren galderan (“Uste duzu beharrezkoa dela gizartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea?”), % 99k baietz erantzun du eta % 1ek ezetz. Ezetz erantzun duen bakarra 40-50 urte bitarteko emakumea da. Seigarren galderan (“Uste duzu genero berdintasuna dagoela?”), % 94k ezetz erantzun du eta % 6k baietz, baietz erantzun duten guztiak 40-50 urte bitarteko emakumeak izanik. Zazpigarren galderan (“Uste duzu aukeren berdintasuna dagoela?”), % 94k ezetz erantzun du eta % 6k, baietz. Baietz erantzun duten guztiak 40-50 urte bitarteko emakumeak izanik. Zortzigarren galderan



(“Ba al dakizu zer den feminismoa?”), % 99k baietz erantzun du eta % 1ek ezetz. Ezetz erantzun duen bakarra gizona da, 40-50 urte bitartekoa.

Bederatzigarren galderan (“Uste duzu eskolan genero berdintasuna lantzea garrantzitsua dela?”), % 97k baietz erantzun du eta % 3k ezetz, ezetz erantzun duten guztiak 40-50 urte bitarteko emakumeak izanik. Hamargarren galderan (“Uste duzu feminismoa eskolan lantzea garrantzitsua dela?”), % 87k baietz erantzun du eta % 13k ezetz, ezetz erantzun dutenen artean 40-50 urte bitarteko gizonak nabarmenduz. Hamaikagarren galderan (“Uste duzu umeez eskoletan feminismoa nahiko edo modu sistematiko batean lantzen dutela?”), % 57k gehiago landu beharko luketela erantzun du, % 37k nahiko lantzen dutela eta % 6k ez dutela lantzen. Ikasleek feminismoa eskoletan lantzen ez dutela erantzun duten guztiak emakumeak dira, gehienak 40-50 urte bitartekoak.

Hamabigarren galderan (“Uste duzu IKT-ak tresna baliagarriak direla feminismoa eskolan lantzeko?”), % 88k baietz erantzun du eta % 12k ezetz, ezetz erantzun duten guztiak 40-50 urteko emakumeak izanik. Hamahirugarren galderan (“Uste duzu umeez eskolan IKT-en bidez feminismoa lantzen dutela?”), % 57k ez dakitela erantzun du, % 28k ezetz eta % 15ek baietz. Ez dakitela erantzun dutenen artean 40-50 urteko gizonak nabarmentzen dira, ezetz erantzun dutenen artean 30-40 urteko emakumeak eta baietz erantzun dutenen artean 40-50 urteko emakumeak. Hamalagarren galderan (“Uste duzu teknologiaren munduan genero arrakala dagoela?”), % 73k baietz erantzun du eta % 27k ezetz. Ezetz erantzun dutenen artean, 40-50 urte bitarteko gizonak nabarmentzen dira.

Hamabosgarren galderan (“Uste duzu garrantzitsua dela aipatutako genero arrakala desagertzea?”), % 88k baietz erantzun du, % 10ek arrakalarik ez dagoela eta % 2k ezetz. Ezetz erantzun duten guztiak emakumeak dira, 40-50 urte bitartekoak eta arrakalarik ez dagoela erantzun dutenek 40-50 urte bitarteko gizonak. Hamaseigarren galderan (“Uste duzu IKT-en erabilera eskoletan sustatzea erabilgarria izan daitekela aurreko galderan aipatutako arrakala desagertzen joateko?”), % 83k baietz erantzun du, % 10ek ez dagoela inolako arrakalarik eta % 7k ezetz. Ezetz erantzun dutenen artean, 40-50 urte bitarteko emakumeak nabarmentzen dira eta arrakalarik ez dagoela erantzun dutenen artean, 40-50 urte bitarteko gizonak.

## 2.5. Ondorio nagusiak

Lehen Hezkuntzako ikasleei, irakasleei eta hauen familiei burututako inkestak aztertuta, ondoriozta daiteke ikasleek hezkidetzak eskolan ez dutela modu sistematiko batean

lantzen. Izan ere, familien % 57k eta irakasleen % 52,1ek hezkidetza eskolan gehiago landu beharko litzatekela pentsatzen du. Hala eta guztiz ere, irakasleen % 98,6k eta familien % 87k hezkidetza eskolan lantzea ezinbestekoa dela pentsatzen du.

Gainera, familien % 88k eta irakasleen % 97,3k hezkidetza eskolan lantzeko IKT-ak tresna baliagarriak direla uste du. Honekin batera, ikasleen % 84,7k klaseko jarduera burutzeko IKT-ak erabiltzea gustatzen zaiola esaten du. Hala ere, hauen aburuz, ikasleek hezkidetza lantzeko ez dute IKT-ak erabiltzen. Hain zuzen ere, irakasleen % 50,7k eta familien % 28k aipatutakoa baieztatzen du, familien % 57k ez dakiela erantzun duela kontuan hartuz.

Hortaz, hezkidetza eskolan landu beharra dagoela azaltzen dute eskola komunitateko kide ezberdinek, aldi berean ez dela behar beste lantzen. Horretaz gain, hezkidetzaren lanketarako IKT-en erabilerak emaitza positiboak ekarriko lituzkeelakoan daude denak.

### **3. Proposamen didaktiko berritzailea: “Hezkidetza, gure altxorra!”**

#### **3.1. Justifikazioa**

Hezkidetza joera sexistarik gabeko hezkuntza defendatzen duen sistema bat da, identitate femeninoen eta maskulinoen eraikuntza prozesuak kontuan hartzen dituena. Gainera, diskriminazioak behatu eta aztertu egiten ditu hauen aurka joan ahal izateko eta genero estereotipoak argi islatzen dituzten mugak gainditzen ditu, ezagutzetan, jarreretan, balioetan eta jokabideetan oinarritutako hezkuntza bermatuz (Galdo, 2019). Hezkidetza, eskubide bat eta helburu didaktiko bat izateaz gain, Derrigorrezko Hezkuntzak ikasleengan sustatu behar dituen balioetan oinarritutako edukien artean aurki daiteke, ikasle goaren, hau da, etorkizuneko herritarren formakuntza kritikoa eta integrala lortuz. Hortaz, hezkidetza ezinbestekoa da gaur eguneko hezkuntza sisteman, esan bezala, ikasle goari formakuntza integrala eskaintzeko, errespetuan oinarritutako bizitza baterako prestatuz, non generoaren araberako aspektu diskriminatzaileetarako lekurik ez dagoen (Cabeza, 2010).

Ondorioz, Garridok (2019) aipatzen duen moduan, gizarte feminista bat sortzeko hezkidetza beharrezkoa da. Izan ere, hezkidetza heziketa-espaziora kalitatezko hezkuntza eramatea ahalbidetzen duen guztia da, non beharrezkoak diren aldaketak sortu daitezkeen genero estereotipoek ezarritako mugatik aske dagoen garapen pertsonala lortu arte.

Aipatutakoa kontuan hartuz, lan honen helburua ikasleek hezkidetzaren garrantziaz jabetzea da, hau da, pertsona guztiak desberdinak garela jakitea, desberdintasun hauen aurrean errespetuzko jarrerak eraikiz, eta enpatia zein harreman osasuntsuak bermatuz. Bestetik, lan honen xedea Lehen Hezkuntza arautzen duen 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskinean jasotako helburuetan oinarritzen da (Eusko Jaurlaritza, 2015).

“Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutu eta finkatzea bere pribatutasun-espazioan, besteen nortasuna errespetatzea eta autoestimua garatzea, nor bere bizitza eta talde-bizitza baikortasunez bizitzeko.” (237. or.); “Generoa, jatorria, etnia, sinesmenak, desberdintasun sozial eta pertsonalak, orientazio afektibo-sexualak edo beste edozein motatakoak direla-eta sortutako gatazkak identifikatu eta aztertzea, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuiatzeko.” (237. or.); eta, “Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, Haurren eskubideen Konbentzioak eta Estatuko eta EAeko legeriak jasotako eskubideak eta betebeharrak zein diren jakin, bere gain hartu eta babestea, haien oinarri diren balioak identifikatzea, berdintasunezko jarrera sustatzea, diskriminazioa dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak arbuiatzea, eta, bereziki, emakumeei eragiten dietenak, jendearen eta taldeen portaeren balioespen etikoa egiteko irizpidetzat hartzeko.” (237. or.).

Laburbilduz, “Hezkidetzaz, gure altxorra!” deituriko proposamen didaktiko berritzaileen eskaintzen diren materialen bidez, ikasleek hezkidetzaz zer den ikasiko dute, bere garrantziaz jabetuko dira, errespetuzko jarrerak, enpatia edota harreman osasuntsuak bezalako balioak bermatuz.

### **3.2. Helburuak**

Material berritzaile didaktiko honek helburu orokor bat eta zenbait helburu zehatz ditu. Helburu orokorra ondorengoa da:

Ikasleak hezkidetzaren garrantziaz jabetzea, hau da, pertsona guztiak desberdinak garela jakitea, desberdintasun hauen aurrean errespetuzko jarrerak eraikiz, eta enpatia zein harreman osasuntsuak bermatuz.

Helburu orokorra lortzeko bidean helburu zehatzak hauek dira:

- Hezkidetzaz kontzeptua zer den ezagutzea eta ulertzea, ariketa dinamiko, berritzaile eta digitalen bidez, hezkidetzaren garrantziaz ohartzeko.

- Hezkidetzak defendatzen dituen ideiak ezagutzea eta ulertzea, ariketa dinamiko, berritzaile eta digitalen bitartez, gizartean dagoen aniztasuna begirunez aztertzeko.
- Egoera ez hezkidetzailleak identifikatzeko gaitasuna izatea, jarduera dinamiko, berritzaile eta digitalak aurrera eramanez, ikasleek haien balioak eta identitatea sortzen joateko.
- Gizartean dagoen aniztasunaz ohartzea, jarduera dinamiko, berritzaile eta digitalen bidez, guztion arteko adeitasunezko trataera sustatzeko.
- Berdintasuna, errespetua, enpatia edota harreman osasuntsuak bezalako balioak bermatzea, ariketa dinamiko, berritzaile eta digitalak eginez, printzipioak eta balioak dituzten pertsonak hezitzeko.

### 3.3. Konpetentziak

Proposamen berritzaile honen bidez ikasleek jorratuko dituzten konpetentziak eta hauen osagaiak Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean zehazten dira. Hona hemen ikasleek garatuko dituzten gaitasunak eta gaitasunen osagaiak (Eusko Jaurlaritza, 2015).

KONPETENTZIAK		OSAGAIK
<b>Oinarrizko zehar konpetentziak</b>	Hitzezeko eta hitzik gabeko eta komunikazio digitalerako konpetentzia	Konpetentzia digitala: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguru bate erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.
	Ikasteko eta pentsatzeko konpetentzia	Hainbat iturritan (inprimatuak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak...) informazioa bilatzea, aukeratzea eta erregistratzea, eta iturrien egokitasuna ebaluatzea. Informazioa ulertzea eta ulertutakoa adieraztea (pentsamendu analitikoa). Informazioa ebaluatzea eta nola ebaluatu den adieraztea (pentsamendu kritikoa). Ideiak sortzea, aukeratzea eta adieraztea (pentsamendu sortzailea). Baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.
	Elkarbizitzarako konpetentzia	Norberaren eta besteren nahiak asebeste daitezen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea. Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneko lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta. Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratorzen diren arauak betetzea. Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.

	Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia	Ideiak edo proiektuak sortzea eta/edo nor bere gain hartzea, proiektuen plangintza egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea. Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea. Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.
	Norbera izaten ikasteko kompetentzia	Hitzezko komunikazioa, hitzik gabekoa eta komunikazio digitala autorregulatzea. Ikasteko prozesu eta estilo kognitiboa autorregulatzea. Portaera soziala eta morala autorregulatzea. Motibazioa eta borondatea autorregulatzea erabakiak eta betebeharrak gauzatzeko. Emozioen autorregulazioa.
<b>Diziplina baitako oinarritzko kompetentziak</b>	Kompetentzia soziala eta zibikoa	Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familian, eskolan, auzoan, herrian, nazioan eta gainerako mailetan). Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita; aintzat hartzea garaiko gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala, eta, bereziki, egungo euskal gizartekoa, eta naturarekin, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko. Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritziak osatzeko erreferente unibertuala eta norberak herritar gisa dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko erreferentea; eta parte-hartzeko, begiruneko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzea, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrera eskuratzea; hau da, munduaren alderdi fisikoak, sozialak eta kulturalak, iraganean izandako bizipen kolektiboak eta gaur egungo bizipenak, eta bizitza sozialari dagokion espazio fisikoa ulertzeko behar direnak, munduan eragile aktibo izateko.

1. Taula. Kompetentziak eta osagaiak

### 3.4. Nori dago zuzenduta

Proposamena hezkuntza komunitatea osatzen duten hiru eragile nagusiei dago zuzenduta. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei, irakasleei eta familiei.

### 3.5. “Hezkidetza, gure altxorra!” material berritzaile didaktiko digitala

Lehen Hezkuntzako ikasleei, irakasleei eta aipatutako ikasleen familiei burututako inkestei esker hezkuntzan hezkidetzaren inguruan dagoen ezagutza faltaz ohartu ondoren eta literatura zientifikoan hezkidetza eta gamifikazioari buruzko azterketa burutu ostean, “Hezkidetza, gure altxorra!” (<https://leirecastresana.wix.com/my-site-1/hezkidetzagurealtxorra>) deituriko material didaktiko berritzaile digitala sortu da. Honetan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzako, hauen irakasleentzako eta familientzako materialak aurki daitezke.

### 3.5.1. “Hezkidetza, gure altxorra!” material berritzaile didaktiko digitalaren deskribapena eta erabilera

“Hezkidetza, gure altxorra!” (<https://leirecastresana.wix.com/my-site-1/hezkidetzagurealtxorra>) hezkidetza lantzeko sortutako material berritzaile didaktiko digitala da. Bere helburua, ikasleak hezkidetzaren garrantziaz jabetzea da eta horretarako, ikasleei, irakasleei eta familiei bideratutako atalak daude. Hauekin batera, sarrera eta kontaktua deituriko atalak aurki daitezke.

Alde batetik, sarreran material didaktiko berritzaile digitala aurkezten duen bideo bat eta gainontzeko ataletara joateko aukera aurki daitezke.

Beste alde batetik, ikasleen atalean ikasleentzako materiala aurki daiteke, hau da, proposatutako jarduera desberdinak azaltzen dira. Lehenengo jarduera “Zer da hezkidetza?” deitzen da eta honetan, ikasleek hezkidetzaren inguruko galdetegi bat burutuko dute, gaiaren inguruan dituzten aurreiritziak eta ezagutzak zeintzuk diren jakiteko. Bigarren jarduera “Daniela Pirata ipuina” du izena eta honetan, ikasleek Daniela Pirata ipuina ezagutuko dute bide interaktibo baten bitartez, ipuina lantzen duten heinean galdera batzuei erantzunez eta egoera ez hezkidetzailleak identifikatzen ikasiz. Hirugarren jarduera “Escape Room digitala: Mezu ezkutuaren bila!” deitzen da eta honetan, ikasleek hezkidetza zer den eta defendatzen dituen ideiak zeintzuk diren ikasiko dute, Escape Room baten laguntzarekin. Laugarren jarduera “Poster hezkidetzailleak sortzen” du izena eta honetan, ikasleek Canva aplikazioaren bidez taldeka poster bat sortuko dute non gomendio hezkidetzailleak agertu beharko dira. Bosgarren jarduera “Berdina pentsatzen jarraitzen duzu?” deitzen da eta honetan, ikasleek lehenengo ariketan burututako galdetegi berdina egingo dute, ikasitakoa aplikatzen dakitela eta hezkidetzaren inguruan zituzten aurreiritziak apurtu dituztela baieztatzeko. Azkenik, seigarren jarduera “Zure iritzia ematen!” du izena eta honetan, aurreko ariketak baloratzeko galdetegi bat aurrera eramango dute, hau da, froga pilotoa (*ikusi 3. eranskina*).

Bestetik, irakasleen atalean material berritzaile didaktiko digitala nori dagoen zuzenduta, erabilitako metodologiak zeintzuk diren, testuingurua, helburu orokorra eta zehatzak, kompetentziak, ebaluazioa, saioren antolaketa eta materialak biltzen dituen gida, irakaslearen gida (*ikusi 4. eranskina*), Escape Room digitalaren ikasleen gida (*ikusi 5. eranskina*) eta hezkidetzaren oinarri teorikoak azaltzen dituen bideo bat aurki daitezke.

Jarraitzeko, familien atalean ikasleek haien familiarekin burutzeko materiala aurki daiteke. Lehenengo jarduera “Etxerako lanak” deitzen da eta honetan, ikasleek haien familiarekin familiako zein kidek zein etxeko lan burutzen duen aztertuko dute, taula baten laguntzaz. Ondoren, familia kide guztiek egiten duten lana orekatuta dagoen hausnartuko dute eta horrela ez bada, etxeko lanak planifikatu beharko dituzte haien familia arlo honetan hezkidetzaileria izateko. Bigarren jarduera “Aisialdia” du izena eta honetan, ikasleek haien familiarekin bideo bat ikusiko dute, non haien aisialdiaz gozatzeko aukera desberdinak dauden, estereotipoak alde batera utzita. Ondoren, familia kide bakoitzak pentsatu beharko du zein jarduera gustatuko litzaieke burutzea bere denbora librean eta familia kide guztiak konprometitu behar dira elkarrekin ekintza hori aurrera eramatera. Horretarako, konpromiso fitxa bete beharko dute.

Amaitzeko, kontaktuaren atalean nirekin kontaktuan jartzeko aukera ematen da, hala nola, zalantzak edota iradokizunak bidaltzeko aukera.

### 3.5.2. Escape Room digitalaren deskribapena

Hezkidetzat lantzeko material berritzaileen artean, Escape Room digitala aurki daiteke (<https://view.genial.ly/607bf92a3e36040d6b77555d>). Honen bidez, ikasleek hezkidetzat zer den eta defendatzen dituen ideiak zeintzuk diren ikasiko dituzte, modu dinamiko eta dibertigarri batean.

Horretarako, ikasleak detektibe bihurtuko dira, lagun batek haientzat ezkutatu duen mezu bat aurkitzeko. Lagun hau Daniela Pirata da eta haientzat ezaguna izango da aurretik burututako jarduera batean haien istorioa ezagutuko dutelako. Mezua aurkitzeko laguntza izango dute, Daniela Pirataren laguna den loro batena. Loroak irla batera eramango ditu ikasleak eta bertan hizki batzuk aurkitu beharko dituzte. Ondoren, hauekin hitz bat sortu beharko dute, bestela ez dute aurkituko Daniela Piratak haientzat prestatu duen mezua. Pista hauek pergamino batean agertuko dira edota loroak berak emango dizkie.

Azkenik, aipatu beharra dago, ikasleek gida bat izango dutela, Escape Room-a ebazteko lagungarriak diren aholkuak eta materialen erabilpenari buruzko azalpenak ematen dituen (*ikus 5. eranskina*).

### 3.5.3. Froga pilotoa

Ikasleek proiektua landu ondoren, haien asetasun maila neurtzeko froga pilotoa burutu dute (*ikus 3. eranskina*). Izan ere, proposatutako materiala ikasleentzat egokia den ala ez

jakitea ezinbestekoa da. Froga pilotoa material didaktikoa jorratu izan duten Maristak Zalla Ikastetxearen Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei bideratu zaie. Hau Likert eskalan oinarritu da eta 5 item izan ditu. Aipatu beharra dago, ikasleek froga pilotoa webgunean bertan eskuragarri izan dutela eta Google Forms-en gauzatu dela.

Honen bidez ateratako ondorio nagusia material didaktikoa guztiz egokia dela izan da. Hau da, ikasle gehienek ariketak gustatu zaizkiela, jardueri esker gauza berriak ikasi dituztela, hezkidetzaren gehiago lantzea gustatuko litzaiekela, metodologia gustatu zaiela eta plataforma gomendatuko luketela erantzun dute.

#### **4. Ondorioak**

Gradu Amaierako Lan honen helburua Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasgeletan hezkidetzaren lantzeko material didaktiko berritzailea diseinatzea izan da. Izan ere, nahiz eta gure gizartean emakumeen eskubideen aldeko pausu handiak eman diren, oraindik asko falta zaigu gizarte feminista batean bizitzeko. Eskolak gizartearen isla dira, gizartean ematen diren egoerak eskoletan ere ematen direlako. Ondorioz, hezkidetzaren eskoletan lantzea ezinbestekoa bilakatu da.

Hezkidetzaren presentzia eskoletan beharrezkoa den arren, aipatutako material didaktikoa burutu aurretik aurrera eramandako inkestei esker, ondoriozta daiteke hezkidetzaren Lehen Hezkuntzako etapan ez dela modu sistematiko batean jorratzen. Inkestak hiru izan dira, Lehen Hezkuntzako ikasleei, huen irakasleei eta familiei bideratutakoak. Hauetatik ateratako ondorio nagusia, hezkidetzaren hiru eragile hauentzako guztiz garrantzitsua dela, baina eskoletan nahiko lantzen ez dela da.

Honetaz gain, galdetegiei esker ere ikasleei eduki desberdinak lantzeko IKT-ak erabiltzea gustatzen zaiela eta irakasle zein familientzat huen hezkidetzaren lantzeko tresna baliagarriak izan daitezkeela ohartzeko aukera egon da. Hortaz, galdetegiaren bidez ateratako baieztapenei esker, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin hezkidetzaren lantzeko material didaktiko berritzaile digitala martxan jarri da, “Hezkidetzaren, gure altxorra!” deiturikoa (<https://leirecastresana.wix.com/my-site-1/hezkidetzagurealtxorra>).

Aipatu beharra dago, material didaktiko berritzaile digital honen helburua ez dela soilik ikasgeletan lantzea, baizik eta ikasleek ere haien familiako kideekin etxean hezkidetzaren jorratzea. Beraz, “Hezkidetzaren, gure altxorra” ikasleei, huen irakasleei eta familiei dago zuzenduta. Izan ere, etxean ere landu beharreko gaia dela pentsatu da.



“Hezkidetza, gure altxorra!” material egokia dela jakiteko, material hori erabili dutenen oniritzia jasotzea ezinbestekoa da. Horretarako, esan bezala, ikasleei zuzendutako froga pilotu batek (*ikusi 3. eranskina*) sortutako materiala egokia dela adierazten du. Horregatik, eskoletara eramatea aberasgarria izan daiteke, ikasleekin hezkidetza lantzea ezinbestekoa delako eta honen bidez modu berritzaile batean ikasten delako.

Azkenik, material didaktiko berritzaile digitala modu egoki batean aurrera eramateko, irakasleentzako zein ikasleentzako gidak sortu dira (*ikusi 4. eta 5. eranskinak*), non “Hezkidetza, gure altxorra!”-ren helburua eta erabilera azaldu dira. Gainera, lanak izan dituen mugetatik, hau da, laginaren kopuru eta froga pilotoaren parte hartzaile eskasetatik, etorkizunerako bi erronka eratorri dira, ikerketa sakonago bat egitea eta sortutako materiala zabaltzea, honen erabilera handitzeko asmoz.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Arcos G., Estela; Figueroa A., Víctor; Miranda J., Christian eta Ramos, Carmen (2007). Estado del arte y fundamentos para la construcción de indicadores de género en educación. *Estudios pedagógicos (Valdivia)*, 33(2), 121-130. 2021/03/18an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/7nl30Ky>
- Baena Extremera, Antonio eta Ruiz Montero, Pedro Jesús (2009). Tratamiento educativo de la coeducación y la igualdad de sexos en el contexto escolar y en especial en educación física. *Aula abierta*, 37(2), 111-122. 2021/03/16an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/anl9VrV>
- Ballarín Domingo, Pilar (2004). Género y políticas educativas. *XXI. Revista de Educación*, (6), 35-42. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/wnl9Har>
- Benedí Sancho, Laura (2012). La lucha por la escuela mixta. La coeducación durante la II república. G. Vicente eta Guerrero-an. (Koord. eta ed. lit.), *Estudios sobre la historia de la Enseñanza Secundaria en Aragón* (319-328. or.). Zaragoza, Espainia: ACTAS.
- Bodnar, Cheryl A.; Anastasio, Daniel; Enszer, Joshua A. eta Burkey, Daniel D. (2016). Engineers at play: Games as teaching tools for undergraduate engineering students. *Journal of Engineering Education*, 105(1), 147-200. 2021/05/15an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/0nvCUMp>
- Cabeza Leiva, Ana (2010). Importancia de la coeducación en los centros educativos. *Pedagogía magna*, (8), 39-45.
- Cremades, M. A. (1995). La coeducación como propuesta. S. Acuña Franco (Koord.), *Coeducación y tiempo libre*-an (13-45. or.). Madril: Popular.
- Díaz-Pinés Sendra, Carmen (d.g.) *Diagnóstico sobre la realidad en los centros en materia de igualdad* [Datuen multzoa]. Jerezko Irakasle Zentroa. 2021/05/25an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/2nl6mXn>

- ECD/65/2015 Ordena, urtarrilaren 21ekoa, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko gaitasunen, edukien eta ebaluazio irizpideen arteko harremanak deskribatzen dituena. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*. Madril, 2015eko urtarrilaren 29a, zk. 25, 6086-7003. or. 2021/03/18an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/QncwgEB>
- Emakumearen Euskal Erakunde. (2015). *Glosario de términos impacto de género*. 2021/03/15an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/snzq2ar>
- Eusko Jaurlaritza. (2015). Oinarrizko hezkuntzako curriculum (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Fernández González, Noelia eta González Clemares, Nuria (2015). La LOMCE a la luz de la CEDAW. Un análisis de la coeducación en la última reforma educativa. *Journal of supranational policies of education*, (3), 242-263. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/DnvBx0Q>
- Fiss, Owen M. (1993). ¿Qué es el feminismo?. *DOXA*, (14), 319-336. 2021/03/15an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/5nv774A>
- Galdo Gracia, Jose María (2019ko martxoan). La importancia de la coeducación para el logro de la igualdad. *Forum Aragón: revista digital de FEAE-Aragón sobre organización y gestión educativa-an*, (zk. 26, 16-19. or.). Fórum Europeo de Administradores de la Educación de Aragón. 2021/05/13an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/Dnv1hGW>
- García Lázaro, Irene (2019). Escape room como propuesta de gamificación en educación. *Hekademos: revista educativa digital*, (27), 71-79. 2021/03/18an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/2nv5Chr>
- Garrido Riazuelo, Begoña (2019ko martxoan). La perspectiva de género como constante en la escuela. *Forum Aragón: Forum Aragón: revista digital de FEAE-Aragón sobre organización y gestión educativa-an*, (zk. 26, 20-23. or.). Fórum Europeo de Administradores de la Educación de Aragón. 2021/05/13an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/Dnv1hGW>
- González Pérez, Teresa (2010). Mujeres, educación y democracia. *Revista de Educación*, (351), 337-359. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/EnxMoPo>
- Instituto de la Juventud. (2008). *Sondeo de opinión y situación de la gente joven* [Datuen multzoa]. Espainiako Gobernu. 2021/05/25an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/MnbruXv>
- Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación del Profesorado. (d.g.). *Competencia Digital Educativa*. 2021/03/18an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/wnxM9ZG>
- Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación del Profesorado. (2013). *Encuesta europea a centros escolares: las TICs en educación* [Datuen multzoa]. Europako Proiektuen Departamentua. 2021/05/25an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/KnbrdqR>
- Iriarte, Mariano (2007). ¿Motivación “intrínseca” y “extrínseca”? 2021/05/15an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/Gnx1oaz>

- Lege Organikoa 1/1990, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrekoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*. Madril, 2011ko urriaren 4a, zk. 238, 28927-28942. or. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/onx0Jpp>
- Lege Organikoa 10/2002, abenduaren 23koa, Hezkuntzaren Kalitatezkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*. Madril, 2002ko abenduaren 24, zk. 307, 45188-45220. or. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/Pnx0X8E>
- Lege Organikoa 1/2004, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Neurri Integralena. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*. Madril, 2004ko abenduaren 29a, zk. 313, 1-53. or. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/ynx29Dk>
- Lege Organikoa 2/2006, maiatzaren 3koa, Hezkuntzako. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*. Madril, 2006ko maiatzaren 4a, zk. 106, 1-112. or. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/vnx9yag>
- Llorens Largo, Faraón; Gallego Durán, Francisco José; Villagrà Arnedo, Carlos José; Compañ Rosique, Patricia; Satorre Cuerda, Rosana eta Molina Carmona, Rafael (2016). Gamificación del Proceso de Aprendizaje: Lecciones Aprendidas. *VAEP-RITA*, 4(1), 25-32. 2021/03/18an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/3nx3MpW>
- López Belmonte, Jesús; Segura Robles, Adrián; Fuentes Cabrera, Arturo eta Parra González, María Elena (2020). Evaluating Activation and Absence of Negative Effect: Gamification and Escape Rooms for Learning. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 17(7), 1-12. doi: <https://doi.org/ggmx>
- Marcus, Herbert (1976). *Calas en nuestro tiempo*. Barcelona, Espainia: Icaria.
- Molines Borrás, Sandra (2015). *La coeducación en un centro educativo: análisis del patio escolar*. (Doktore Tesia, Balentziako Unibertsitatea, Espainia). 2021/03/15an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/Qnx7u7a>
- Moreno Fernández, Olga; Hunt Gómez, Coral Ivy; Ferreras Listán, Mario eta Moreno Crespo, Pilar (2020). Los Escape Rooms como recurso didáctico inclusivo y motivacional en las aulas de primaria: Un estudio desde la perspectiva del profesorado en formación inicial. *Revista Prisma Social*, (31), 352-367. 2021/05/15an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/Enx7VuM>
- Núñez, María Gloria (1998). Políticas de igualdad entre varones y mujeres en la segunda república española. *Espacio, tiempo y forma. Serie V, Hª Contemporánea*, (11), 393-445. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/vnvNoHz>
- Oliva, Herberth Alexander (2016). La gamificación como estrategia metodológica en el contexto educativo universitario. *Realidad y reflexión*, (44), 30-47. 2021/03/18an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/UnvNJ6U>
- Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura. (1960ko abenduaren 14an). *Convención relativa a la Lucha contra las Discriminaciones en la Esfera de la Enseñanza 1960*. 2021/03/17an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/dnQuK97>
- Ospina Rodríguez, Jackeline (2006). La motivación, motor de aprendizaje. *Revista Ciencias De La Salud*, 4(especial), 158-160. 2021/05/16an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/TncrWJz>

- Polet Portillo, Alejandra eta Marielos Cardona, Claudia (2016). La violencia contra la mujer. ¿Un problema de área rural?. *Revista de Ciencias Forenses de Honduras*, 2(2), 3-9. 2021/03/15an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/7ncrFr3>
- Real Academia Española. (2014). *Diccionario de la lengua española* (23. ed.). 2021/03/15an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/anvNz2j>
- Romero Rodrigo, Mercedes eta López Marí, María (2021). Luces, sombras y restos del profesorado entorno a la gamificación apoyada en TIC: un estudio con maestros en formación. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 24(2), 167-179. 2021/05/10an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/QnvNjuM>
- Sau, Victoria (2000). *Diccionario ideológico feminista*. (Bol. 1, 121-122. or.). Bartzelona, Espainia: Icaria.
- Scanlon, Geraldine M. (1987). La mujer y la instrucción pública: de la ley Moyano a la IIª República. *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, (6), 193-207. 2021/03/16an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/incyLY6>
- Sierra Daza, María Caridad eta Fernández Sánchez, María Rosa (2019). Gamificando el aula universitaria. Análisis de una experiencia de Escape Room en educación superior. *Revista de Estudios y Experiencias en Educación*, 18(36), 105-115. 2021/05/16an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/SnvNPrY>
- Subirats, Marina (2010). *La coeducación hoy: los objetivos pendientes*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde. 2021/03/17an berreskuratuta, hemendik: <https://n9.cl/qr1x0>
- Ugarte Maiztegi, Beatriz; Otaduy Bengoa, María Luisa eta Irigoyen Perurena, María Jesús (d.g.). *Irakurgaia, hezkidetzaren alde busti!: Betaurrekoen garrantzia*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Berrikuntzen, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza eta Berdintasunerako Zuzendaritza.
- Urruzola Zabalza, María José (1995). *Introducción a la filosofía coeducadora*. Bilbo: Maite Canal Iglesias.
- Vassileva, Julita (2012). Motivating participation in social computing applications: a user modeling perspective. *Springer*, 22(1-2), 177-201. 2021/03/18an hartuta, hemendik: <https://cutt.ly/Xnv0x96>
- Vidergor, Hava E. (2021). Effects of digital escape room on gameful experience, collaboration, and motivation of elementary school students. *Computers & Education*, 166, 2-14. doi: <https://doi.org/ggm9>